




LIBURUA

Irudimenak irribarrea



TXABI ARNAL

BERTA BEREZI EDU ZELAIETA ETA TXABI ARNAL

EREIN, 2021

XABIER ETXANIZ ERLE

Zelaietak eta Arnalek lau eskutara idatzitako hirugarren obra dugu hau, oker ez bagaude. *Torlojuak* izan zen lehena, *Tatxani Handiaren azken trukoa* etorri zen ondoren, eta orain *Berta Berezi* dakarkigute Gasteizko irakasleek.

Beren obretan umorea, hitz jokoak eta bizitasun handia erabili dute egileek, eta oraingo honetan ere gauza bera esan dezakegu; aldaketa, beharbada, oraingoan testua luzeagoa dela; ipuin bat beharrez neska berezi baten istorioak kontatzen baitzizkigute.

Zazpi ataletan banaturiko lan honen hasieran Bertaren agerpena/aurkezpena kontatzen zaigu. Klaseko lehen egunean neska berri bat agertu da ikasgelan eta Bertak oso modu bitxian erantzungo dio irakasleak botatako erronkari: "Badakit agian zaila egingo zaizula orain,

bat-batean, zeure burua aurkeztea ikaskideen aurrean, baina zerbait esan nahiko zenuke beste guztiok zu ezagutzen hasteko-edo?". Jaio aurretik, amaren sa-beletik medikuarekin komunikatu zela azaldu eta, ondorioz, "NASAko astronautek erabaki zuten Berta izena jartzea haien kaskoetan espaziora atera baino lehen. Berta, B handiarekin".

Edozein irakurlek ikus dezakeen moduan Bertari ez zaio irudimenik falta, ezta bururatzten zaizkion istorioak botatzeko ausardia ere. Eta, hain zuzen, ezaugarri horiek dira Berta hain neska aparta, espeziala, ezberdina eta Berezia (B handiarekin) egiten dutenak; irakurleari bere ateraldiekin irribarrea sorrazten dion neska.

Aurkezpenaz gain beste sei atal dauka liburuak, eta bakoitzak Berta eta bere lagunengatik istorio bat kontatzen du: pe-

retxikoetara joan zirenekoa, petardoa ezandarazi zuten eguneko edo igerilekuko salto lehiaketakoa; baina horien ondoan badira gertakari lasaiagoak ere, musua emateko teknika azaltzen duena edo, bereziki hunkigarria gerta daitekeen "Jonen amonarena" izenekoa.

Liburuak azkar irakurtzen da eta atalez atal irakur daiteke pertsonaiak berberak izan arren gertakariak ez baitute zeri-kusirik, ez bada poliki-poliki Berta gero eta hobeto ezagutzen joango gara, eta irakurleak gozatu egingo du neska-mutil kuadrilla honen istorioekin: eta horixe da, hain zuzen, amaieran, niri behintzat, liburuak utzi didan sentsazioa, ez duela amaierarik. Hots, azken gertakariaren ondoren hurrengoan zain geratzen gara. Agian egileen lau eskuak lanean ari dira dagoeneko Berta Berezi eta bere lagunengatik istorio berriak prestatzen... ●